

**PARTE-HARTZE PROZESUA  
MATXARIA BIRPENTSATU EIBARTIK EIBARRENTZAT**

**EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak  
2015 otsailak 04**

## PARTE-HARTZE PROZESUA

# MATXARIA BIRPENTSATU EIBARTIK EIBARRENTZAT

## EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak 2015 otsailak 04

### ERAGILEA:

Eibarko Udala  
Hirigintza Saila

### LANTALDE TEKNIKOA:

RB3 Hiri Berrikuntza Integra-  
tua

### DATA:

2015 otsailak 04

### AURKIBIDEA

EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, helburu eta dinamika	3
EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, abiapuntua	6
EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak	7
EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, ebaluaketa	14
EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, ondorioak	15
ONDORENGO ETAPA, Ideia Tailerra, aurre informazioa	17

# EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, helburua

## ABIAPUNTUA

ADOSTURIKO AGERTOKIA  
10 urtetako denbora  
ikusmuga

## ESPERO DEN EMAITZA

EKINTZA PLAN INTEGRALA

# EKINTZA PLAN INTEGRALA

Ekintza eta estrategia tailerrarekin hausnarketa fasea itxi da, prozesuko azken faseari, deliberazioari, bide emanaz. Etorkizuneko agertoki positiboak definituriko ildoan, egungo egoera hobetzeko bideragarri eta egokiak diren ekintza eta estrategiak definitzea ahalbidetzen duen teknika da ekintza eta estrategia tailerra. Etapa garrantzitsua da, abiapuntuko testuinguru fisiko eta sozio kulturalarekin hertsiki lotutako esku-hartzeak diseinatzeko oinarriak ezartzen baititu.

Aurreko Tailerrean diseinaturiko etorkizuneko agertokitik abiatuta, partaideei agertokiko puntu bakoitza, ezarritako 10 urtetako epe mugan beratu progresiboki errealitate bihurtu ahal izateko ekintza erabilgarriekin lotzeko eskatu zaie.

RB3ren Metodologiako Ekintza eta Estrategia matrizearen gainean lan egin da. Lan saioa bizkortzeko, partaideei, RB3K prozesua hasi zenetik bildutako ekarpenetatik ateratako ekintza posibleen aurre zerrenda bat helarazi zaie eta web gunean publikatu da.

Zerrenda hau dokumentu ireki gisa proposatu da. Ez dute zertan zerrendako ekintza guztiak hautatu beharrik, eta bertan ez dauden ekintzak gehitu ditzakete.

Parte-hartze prozesuaren jarraipenerako, Diagnostikoan zehaztu eta Agertokian erabilitako arazo multzoen kategoriak mantendu dira.

## 10 URTERAKO AGERTOKI POSITIBOA

OINEZKO  
MUGIKORTASUNA



IBILGAILUEN  
MUGIKORTASUNA



ERABILERA



ABANDONU  
DEGRADAZIO  
BIRGAITZEA



INGURUMENA



## EKINTZA PLAN INTEGRALA

ETORKIZUNEKO  
AGERTOKIA MODU  
MAILAKATU ETA  
KOHERENTEAN  
LORTZE A  
BIDERAGARRI EGINGO  
DUEN PLAN GLOBALA  
DEFINITZEA

**TAILERRAREN AURKEZPENA**

Helburua  
Dinamika

**TALDEKAKO LANA**

Banakako agertoki  
matrizea

**BATERA JARTZEA**

Emaitzen aurkezpena  
Matrize bateratua  
Azken debate, eztabaida.

**LABURPEN KRITIKOA**

RB3 lan taldea

**EMAITZEN ITZULKETA**

# EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, dinamika

Lan saio honetan ere, proposaturiko helburua lortzeko, RB3k hiri eraldaketako parte-hartze prozesuetan bere eraginkortasuna maximizatzeko helburuz egokitutako tailer dinamika erabili da. Oinarria RB3k diseinaturiko Gizarte Elkarrizketarako Metodologiako Ekintza eta Estrategia Matrizea izan da.

Saioa, helburuaren eta proposatutako dinamikaren azalpenarekin hasi da, parte-hartze prozesuko ibilbide osoaren baitan saioa non kokatzen den argituz.

Diseinaturiko Etorkizuneko Agertokia oinarri hartuta, partaideei Matrizea betetzeko eskatu zaie, agertokiko puntu bakoitza, bera errealitate bihurtzea bideragarri egingo duen ekintza eta estrategiarekin lotuz.

Lan hau burutzeko, partaideak, ausaz sorturiko lau talde mistotan banatu dira. Talde bakoitzari kolore bat egokitu zaio, une oro bere ekarpena bista arazteko helburuarekin.

Proposaturiko lanaren zailtasun eta garrantzia kontsideratuz, oraingoan taldeei denbora gehiago utzi zaie matrizea betetzeko, zehazki 60 bat minutu.


Era berean, azalpen eta batera jartze fasearen iraupena iraupena ere zabaldu da, partaideei beraien artean eztabaidatzeko aukera emanez, beti ere talde bakoitzak bere azalpenetarako behar duen denbora izan dezaten zainduz. Batera jartze faseak guztira, 45 bat minutuko iraupena izan du.

Lorturiko emaitzetatik abiatuz, RB3 lan taldeak, bere edukiak aztertu, eta laburpen kritiko bat burutu du, txosten honetan dokumentatzen dena.

**ETORKIZUNEKO AGERTOKIA**

- 1 Se consigue mejorar la conexión peatonal con el municipio, calle Ibaigain, calle Estación y el barrio de Urkiza. Así mismo con el polígono industrial al norte.  
Se consigue mejorar la movilidad peatonal en el interior del barrio, aumentando el nivel de seguridad y garantizando la accesibilidad a todos los edificios (aceras, iluminación, señalización)
- 2 Se consigue racionalizar la accesibilidad y la circulación vehicular, solucionando los puntos más críticos como la entrada y salida de la variante y el túnel bajo las vías del tren.  
Se consigue mejorar el trazado y sección de la calle, la ordenación de los aparcamientos y las zonas de carga y descarga.  
Se consigue mejorar la seguridad vial mediante la regulación del tráfico y la señalización.
- 3 a Se consigue un barrio más poblado mediante el impulso a la actividad económica (comercio y/o pequeñas empresas), la ubicación de equipamiento público y el aumento del número de vecinos y vecinas.  
b Se consigue un barrio más poblado mediante el impulso a la actividad económica empresarial.
- 4 Se consigue un buen nivel de conservación y mantenimiento de los edificios y del entorno urbano y natural.  
Se consigue la creación de un espacio público, parque y/o plaza.
- 5 Se consigue un barrio libre de toda contaminación mediante la aplicación de los principios de la sostenibilidad a toda intervención a futuro.
- 6 Se consigue aprovechar las laderas como oportunidad para mejora del tránsito no motorizado (patinetes y bici) y como zonas de ocio y recreo.  
Se consigue recuperar y potenciar la imagen y la identidad del barrio anteponiendo la recuperación de la edificación existente al derribo, en la medida de lo posible.

**TALDEAK**



**MATRIZEA**

	CONJUNTO PROBLEMATICO ARAZO MULTIZOAK	ESCAZARNO AGERTOKIA	ACCIONES Y ESTRATEGIAS EKINTZA ETA ESTRATEGIAK
1	ACCESIBILIDAD, MOVILIDAD PEATONAL	Se consigue mejorar la conexión peatonal con el municipio, calle Ibaigain, calle Estación y el barrio de Urkiza. Así mismo con el polígono industrial al norte. Se consigue mejorar la movilidad peatonal en el interior del barrio, aumentando el nivel de seguridad y garantizando la accesibilidad a todos los edificios (aceras, iluminación, señalización)	
2	MOVILIDAD, CIRCULACION VEHICULAR, ACCESIBILIDAD, APARCAMIENTO	Se consigue racionalizar la accesibilidad y la circulación vehicular, solucionando los puntos más críticos como la entrada y salida de la variante y el túnel bajo las vías del tren. Se consigue mejorar el trazado y sección de la calle, la ordenación de los aparcamientos y las zonas de carga y descarga. Se consigue mejorar la seguridad vial mediante la regulación del tráfico y la señalización.	
3	POBLACION SUFICIENTE, ECONOMIA LOCAL, SERVICIOS	Se consigue un barrio más poblado mediante el impulso a la actividad económica (comercio y/o pequeñas empresas), la ubicación de equipamiento público y el aumento del número de vecinos y vecinas. Se consigue un barrio más poblado mediante el impulso a la actividad económica empresarial.	
4	MANUTENCION, SERVICIOS, EQUIPAMIENTO PUBLICO, APARCAMIENTO, ESPAZIO PUBLICO	Se consigue un buen nivel de conservación y mantenimiento de los edificios y del entorno urbano y natural. Se consigue la creación de un espacio público, parque y/o plaza.	
5	NO CONTAMINACION, SOSTENIBILIDAD, CALIDAD DEL ENTORNO	Se consigue un barrio libre de toda contaminación mediante la aplicación de los principios de la sostenibilidad a toda intervención a futuro.	
6	RECONSTRUCCION, RECONVERSION, REGENERACION	Se consigue aprovechar las laderas como oportunidad para mejora del tránsito no motorizado (patinetes y bici) y como zonas de ocio y recreo. Se consigue recuperar y potenciar la imagen y la identidad del barrio anteponiendo la recuperación de la edificación existente al derribo, en la medida de lo posible.	



# EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, abiapuntua

Aurkezpenean, parte-hartze faseko ibilbidearen eta tailerraren helburu zehatzen berrikuspen bat egin da, jarraituko den dinamika azaltzarekin batera.

Tailerraren aurretik, Agertoki tailerreko emaitza txostena publikatu da eta partaideei bidali zaie. Bertan diseinaturiko etorkizuneko agertokia eta Ekintza eta Estrategien aurre zerrenda dokumentatzen dira, Ekintza Plan Integrala diseinatzeko bi abiapuntuak.

Horrela, guztiek, proposaturiko lana burutu ahal izateko beharrezko informazioa eskuragarri dute.

## ABIAPUNTUA

1

Se consigue mejorar la conexión peatonal con el municipio, calle Ibagain, calle Estación y el barrio de Urkizu. Así mismo con el polígono industrial al norte.

Se consigue mejorar la movilidad peatonal en el interior del barrio, aumentando el nivel de seguridad y garantizando la accesibilidad a todos los edificios (aceras, iluminación, señalización)

2

Se consigue racionalizar la accesibilidad y la circulación vehicular, solucionando los puntos más críticos como la entrada y salida de la variante y el túnel bajo las vías del tren.

Se consigue mejorar el trazado y sección de la calle, la ordenación de los aparcamientos y las zonas de carga y descarga.

Se consigue mejorar la seguridad vial mediante la regulación del tráfico y la señalización.

3

a  
b

Se consigue un barrio más poblado mediante el impulso a la actividad económica (comercio y/o pequeñas empresas), la ubicación de equipamiento público y el aumento del número de vecinas y vecinos.

Se consigue un barrio más poblado mediante el impulso a la actividad económica empresarial.

4

Se consigue un buen nivel de conservación y mantenimiento de los edificios y del entorno urbano y natural.

Se consigue la creación de un espacio público, parque y/o plaza.

5

Se consigue un barrio libre de toda contaminación mediante la aplicación de los principios de la sostenibilidad a toda intervención a futuro.

6

Se consigue aprovechar las laderas como oportunidad para mejora del tránsito no motorizado (peatones y bicis) y como zonas de ocio y recreo.

Se consigue recuperar y potenciar la imagen y la identidad del barrio anteponiendo la recuperación de la edificación existente al derribo, en la medida de lo posible.

## AURRE ZERRENDA

### ESTUDIOS

1. Estudio de movilidad (ver Plan de movilidad)
2. Estudio de la iluminación existente y su mejora en particular para los recorridos peatonales.
3. Estudio pormenorizado para la modificación de la sección y del trazado de la calle Matxaria y/o la abertura de una calle alternativa
4. Estudio pormenorizado del nivel de conservación y de flexibilidad tipológica de las edificaciones existentes
5. Estudio de la posibilidad de reconvertir uno o más de los edificios existentes en un parking rotatorio.
6. Estudio de la viabilidad para la creación de senderos, paseos y bidegorri en las laderas (ver Plan de movilidad)
7. Estudio de la viabilidad para la creación de huertas urbanas en las laderas
8. Estudio de viabilidad para la implantación de sistemas energéticos alternativos (cogeneración, biomasa, etc.)

### PLANES

9. Redacción de un Plan de Mantenimiento
10. Plan de puesta en el mercado de las viviendas vacías (incentivos propietarios, plan de alquiler social, etc.)
11. Plan de ayudas a la rehabilitación (Ayuntamiento, Debegesa, Gobierno Vasco)
12. Plan de acción para limpieza y mantenimiento ordinario (Auzolan, propietarios, parados de larga duración, colegios, etc.)
13. Plan de gestión de residuos del barrio
14. Plan de seguimiento y evaluación de los proyectos e intervenciones de transformación (criterios de sostenibilidad global)

### ACCIONES

15. Acondicionamiento de los accesos a la pasarela sobre las vías del tren
16. Acondicionamiento del túnel y ampliación de aceras (mínimo a un lado)
17. Creación de aceras (mínimo a un lado) en la calle Matxaria y ubicación de pasos de cebra
18. Eliminación de recovecos y de espacios sin control social (seguridad y lectura del espacio urbano)
19. Mejora de la legibilidad del espacio (pavimentos, señalética, etc.)
20. Mejora de la visibilidad e incorporación de señalética
21. Regulación de los aparcamientos de superficie y su correcta señalización
22. Diseño e instalación de elemento de inhibición de tráfico, señalética y otros
23. Creación de zonas de carga y descarga, ubicación, diseño y señalización
24. Construcción o reconversión de un edificio existente en equipamiento público, según necesidades a nivel municipal
25. Construcción o reconversión de un edificio existente en equipamiento comercial, según necesidades a nivel municipal
26. Ampliación de la oferta de vivienda mediante la construcción o la reconversión de uno o más de los edificios existentes o parte de ellos
27. Traslado del depósito de coches y estudio de su potencial de uso
28. Instalación de contenedores para la recogida selectiva de basura
29. Intervención activa en el diseño de la imagen del barrio por parte de la ciudadanía, acciones artísticas, etc.

### GESTIÓN

30. Acuerdo con los propietarios para la cesión temporal de sus inmuebles (uso, rehabilitación, mantenimiento)
31. Incentivos para el fomento a la implantación de empresas y oficinas y programa de asesoramiento y seguimiento (Debegesa, Bic Berrilan)

# EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak

Tailerreko lehen zatian, talde bakoitzak ordu bat izan du beraien Ekintza eta Estrategia Matrizea betetzeko.


Oraingoan, talde gehienak arazorik gabe hasi dira proposaturiko lana burutzen. RB3k hainbat zalantza argitu ditu, baina orokorrean taldekako lana arina suertatu da, ziurrenik partaideak lan dinamika hauekin ohitzen ari direlako eta aurreko tailerretan baina erosoago aurkitu direlako.

Lana aurre ikusitako epean amaituta, talde bakoitzeko ordezkaria emaitzak azaltzeaz arduratu da.

Oraingoan ere parte hartze izpiritu egokia atzeman da. Ordezkarri bakoitzak, Matrizea modu laburrean azaldu du, gainerakoei denbora utziz eta guztien arteko entzute borondatea eta lankidetzaz erakutsiz.

Orokorrean emaitzen gainean antzeman den homogeneotasun maila altuak, aurrez diseinaturiko agertokia zehaztea eta lehenetsuneko esku-hartze estrategiak nabarmentzea ahalbidetu du, ekintza ugari beraien artean erlazionatu baitira.


## 1 TALDEA




## 2 TALDEA



## 3 TALDEA



## 4 TALDEA



**INPLIKAZIOA  
ENTZUTEA  
LANKIDETZA**

# EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak

## MATRIZE BATERATUA

MATXARIA TUIZ   MATRIZ DE ACCIONES Y ESTRATEGIAS   EKINTZA ETA ESTRATEGIAK MATRIZEA		R3	
CONJUNTO PROBLEMÁTICAS ARAZO MULTZOAK	ESCENARIO AGERTOKIA	ACCIONES Y ESTRATEGIAS EKINTZA ETA ESTRATEGIAK	
1 ACCESIBILIDAD, MOVILIDAD, ACCESAL,  IRUGARRITASUNA, MUGIKORTASUNA, ESPALDIAK, ARGIZTAPENA...	Se consigue mejorar la conexión peatonal con el municipio, calles, barridos, calle Estación y el barrio de Ericea. Así mismo se mejoran las condiciones de accesibilidad en el interior del barrio, aumentando el nivel de seguridad y garantizando la accesibilidad a todos los edificios (parques, comercios, rehabilitación).  Auzak hobetzeko ibilbide zuzenak sortzea hobetzen dira, barridoak kaleratzen, Estazio kalearen eta Ericearen, beste espazioak indusgai uzten dira. Se consigue mejorar la movilidad peatonal en el interior del barrio, aumentando el nivel de seguridad y garantizando la accesibilidad a todos los edificios (parques, comercios, rehabilitación).	1 2 3 5 6 11 15 16 17 18 22 23 30	ESTRATEGIA GLOBAL: PLAN DE MOVILIDAD SOSTENIBLE (CON TICKET PARKING, etc.)
2 TRAFICO, CIRCULACION, ACCESIBILIDAD, VARIANTE,  TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA, IRUGARRITASUNA, SAHESBIDEA...	Se consigue mejorar la accesibilidad y la circulación vehicular, reduciendo los puntos más críticos como la entrada y salida de la variante y el tunnel bajo las vías del tren. Se consigue mejorar el tránsito y sección de la calle, la ordenación de los aparcamientos y las zonas de carga y descarga. Se consigue mejorar la seguridad vial mediante la regulación del tráfico y la señalización.  Inbidioaren eraginez eta iragaztasuna arazoak sortzen dira, saharadunak sartzea eta ibilbideak eta ibilbideak lokalak ezak parte hartuak izan dira. Se consigue mejorar el tránsito y sección de la calle, la ordenación de los aparcamientos y las zonas de carga y descarga. Bide seguruak hobetzen dira, trafikaren arazoak eta sinakortasuna baliatuz.	3 4 16 19 20 21 22 23 27	ACCESO VARIANTE CIRCULACION ALTERNATIVA (BARRIO-REHABILITACION) MEDIDA PROVISIONAL SEÑALADO
3 POCOS VECINOS/OS, FALTA ACTIVIDAD, NO COMERCIO, ...  BIZIAGUN GUTXI, JARDUERA FALTA, KOMERTZIO EZA	Se consigue un barrio más peatonal mediante el impulso a la actividad económica (comercio y/o pequeñas empresas), la ubicación de equipamiento público y el aumento del número de vecinos y vecinos.  Auzak jarduera gehiago sortzen dira, jarduera ekonomiko (komertzio edo/eta enpresa txikiak) baliatuz, ekipamendu publikoak kokatuz, eta bizilagun kopurua handituz.  Se consigue un barrio más peatonal mediante el impulso a la actividad económica empresarial.  Auzak jarduera gehiago sortzen dira, enpresen jarduera ekonomiko baliatuz.	6 7 8 10 11 24 25 26 27 30 31	ESTRATEGIA GLOBAL: ACUERDO PROPUESTAS Y SEGUIMIENTO INICIATIVAS AL COMERCIO COLABORACION ZONA 10 ESKOLA OFICIAL DE FORMAS
4 ABANDONO, DEGRADO, MANTENIMIENTO, ESPACIO PUBLICO, AYUDAS REHABILITACION  ABANDONO, DEGRADAZIO, MANTENUA, ESPACIO PUBLICOAK,	Se consigue un buen nivel de conservación y mantenimiento de los edificios y del entorno urbano y natural. Se consigue la creación de un espacio público, parque y/o plaza.  Erabilera eta hiri eta natur inguruen zantza eta mantentze maila ona lortzen da. Espazio publikoak, parkeak eta plaza sortzen dira.	6 7 9 12 13 27 29	
5 RIO MATXARIA, SUELOS POTENCIALMENTE CONTAMINADOS  MATXARIA ERREKA, KUTSATUAK EGON DAITEZKEEN LURZORUAK	Se consigue un barrio libre de toda contaminación mediante la aplicación de los principios de la sostenibilidad a toda intervención a futuro.  Etorrikerria ez du hartze arazoak, jasagaitasun inguruko aplikatuz, motako kutsadura gabea auzo bati lortzen da.	ACONDICIONAR EL RIO Y DARLE UTILIDAD (SI SE PUDE)	
* OTROS,  BESTE BATZUK...	Se consigue aprovechar los saberes como oportunidad para mejorar del tránsito no motorizado (peatones y bicis) y otros modos de vida y recreo. Se consigue mejorar y potenciar la imagen y la identidad del barrio mejorando la rehabilitación existente al día, en la medida de lo posible.  Mendi magalik, mota guztiak gabe (beste eta txikiak) erabilera eta auzoak eta jarduera guztiak auzo bati lortzen dira. Auzoak hobetzeko ibilbide zuzenak sortzea hobetzen dira, barridoak kaleratzen, Estazio kalearen eta Ericearen, beste espazioak indusgai uzten dira.	5 6 7 14 28 24 26 29 30	französisch. ©

Emaitzen aurkezpen fasean, denbora errealean, Matrize bateratuan ekintza eta estrategien edukiak jaso dira, hitz gakoak baliatuz.

Talde batek baino gehiagok antzeko ideia aipatzen badu, ideia errepikatu ordez, marka baten bidez adierazten da. Oraingoan eztabaida eta batera jartzea aldi berean burutu dira.

Ondoren RB3 lan taldea emaitzak garbian jarri ditu, matrize bateratuan bilduz. Bertan talde bakoitzaren ekarpenak dagokion kolorez identifikatzen direnez, lehenetsunak eta adostasun mailak bista araztea posible da.

Bi gauza nabarmendu behar dira. Talde guztiak bat datoz, auzoaren berroneraketa, ibilgailu eta oinezkoen mugikortasun arazoak konpontzetik etorriko dela esaterakoan. Era berean, egungo eraikinak mantentzeko borondatearekin, mantentze selektiboaren alde egiten dute, berriro ere espazio bizi bat izan dadin, egungo beharrei erantzunez auzoaren egungo konfigurazio birpentsatu beharra dagoela jakitun izanik.



## EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak

Herritarrei erraztutako ekintzen aurre zerrenda, lau kategorietan antolatzen da, Azterketak, Planak, Ekintzak eta Kudeaketa. Zerrenda modu honetan egituratzea erabaki da, helburua auzoarekin loturiko etorkizuneko proiektu oro gidatuko duen Ekintza Plana gauzatzea bada, esku-hartze fisikoak definitzera mugatu ezik, egun dauden mugen barnean, esku hartzeen bideragarritasuna bermatuko duten ekintza paralelo edo eta zeharkakoak definitzea garrantzitsua dela argitzeko asmoz.

Tailerreko emaitzen arabera, eta ekintzen artean ezarritako harremanen arabera, hiru ekintza lerro nagusi identifikatu dira.

- Mugikortasuna eta segurtasuna
- Erabilerak, eraikuntzak eta espazio publikoa
- Ingurumena

### Mugikortasun eta segurtasuna.

Talde guztiek ekintza lerro hau estrategikoa kontsideratzen dute. Mugikortasuna hobetzen ez bada, eta bereziki, segurtasun eta kalitate aldetik oinezkoen mugikortasuna baldintzatzen duen ibilgailuena , auzoko inongo esku-hartze ez da bideragarri eta errealia kontsideratzen.

Lehentasunezko ikusten dute oinezkoek espazioan protagonismo gehiago izatea, horretarako espaloiak eratzea eta argiztapena hobetzea planteatzen da. Dena den, hau gauzatu ahal izateko, mugikortasun azterketa xehatu bat gauzatzea ezinbesteko kontsideratzen da.

Aukera ezberdinak planteatzen dira,

- Mendi magaletan Matxaria kaleaz gain beste kale alternatibo bat eratzeko aukera, horrek kale bakoitza norabide bakarrekoa izatea, eta ondorioz oinezkoen mugikortasunerako kalitatezko espazio segurua izatea ahalbidetuko luke. Esku-hartze hauek ezarri bitartean, behin behineko neurriak proposatzen dira, esaterako ibilgailuen egungo norabide bikoitza arautzeko semaforoa ezartzea.
- Seinaleztapen egokia eta trafikoa murriztuko duten elementuak (badenak e.a. ) ezartzea.

MUGIKORTASUNAREN  
AZTERKETA XEHATUA

ADOSTASUNA



LEHENTASUNA



ORDEZKO KALEA

ESPALOIAK

ARGIZTAPENA

SEINALEZTAPENA

ADOSTASUNA



LEHENTASUNA



## EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak

HARROTZEA

BERRESKURAKETA  
MANTENUA

ADOSTASUNA



LEHENTASUNA



APARKALEKUA

ERROTAZIO PARKING-A

ADOSTASUNA



LEHENTASUNA



ORDEZKO TUNELA

PASABIDEA HOBETU

IBARGAIN KALEA HOBETU

MENDI MAGALETAKO  
IBILBIDEAK

ADOSTASUNA



LEHENTASUNA



- Eraikuntza ehundura harrotu, Matxaria kaleko sekzioa hobetu eta era berean karga eta deskarga guneak arrazionalizatu eta atondu, elkarbizitza kale batetan eraldatu ahal izateko.
- Saihesbiderako sarbideak segurtasun mailan hobetu. Azterketa xehatu bat egin ondoren esku-hartzeak “benetako” hobekuntza ekarriko duela ondorioztatzen bada bakarrik burutuko litzatekeela adierazi dute.
- Gainazaleko aparkalekuak hobetu, modu egokian antolatu eta seinaleztatu. Behin behineko neurri gisara, ibilgailuen udal biltegia aparkaleku publikoan bihurtzea planteatu da, talde gehienek biltegia lekualdatzearen aldekoak baitira, orube hutsa auzorako aukera gisa ikusten dutelako.
- Gainazaleko aparkalekuak, egungo eraikin batean kokatutako alturako parking batekin osatu, beti ere bere kokapena erabakitzeko azterketa xehatu batekin eta mugikortasun azterketa berriarekin bat etorri gero. Herritarren parte batek, altuerako parking hau, bertako biztanle eta langileentzako izan beharko litzatekeela pentsatzen dute, beste batzuk aldiz, herriarekiko eta tren geltokiarekiko gertutasuna kontutan hartuta, auzoa biziberritzen lagunduko lukeen disuasio parking bezala ikusten dute. Bigarren hipotesi honekin lotuta, proposamen gehigarriak adierazi dituzte, esaterako; parkingeko txartelak trena erabiltzeko deskontu gisa balio izatea. Udal ibilgailuen biltegia alturako parking honetako solairu batean kokatu litekeela aipatzen da.
- Egungo tunela atontzea, bera handitzeko aukera edo oinezkoentzako ordeko pasabide bat irekitzeko aukerak aztertuz. Partaide batzuk, egungo pasabideari paralelo doan pasabide bat, garai bateko Orbea lantegirako sarbidea zena, badela aipatu dute, baita berriro ireki litekeela ere.
- Egungo trenbide gaineko pasabidea hobetu, bere sekzioa handituz eta sarbideak berreginez, bereziki Matxaria kalekoa.
- Ibagain kalea hobetzea, erdigunearekiko lotura zuzena den heinean. Hobekuntza hau Errebal eraikitzen den momentutik garrantzitsuagoa ikusten da.

Talde batek baina gehiagok, motorrik gabeko mugikortasuna, mendi magaletan ibilbide, bidexka eta baita bidegorriak planteatuz hobetu litekeela pentsatzen dute, bereziki mendebaldeko mendi magala Jardinetarekin lotuz.

# EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak

## Erabilerak, eraikuntza eta espazio publikoa.

Agertoki tailerrean, Matxarian ezarri beharreko erabileren gainean bi ikuspegi egin ziren. Ekintza eta estrategia tailerrean ia partaide guztiak bat etorri dira auzoaren biziberritzeko baldintza bezala erabilera nahasketa proposatzerakoan. Egoki ikusten da jarduera ekonomikoari jarraipena eman eta bultzatzea, etxebizitzaren eskaintza handitu eta dibertsifikatzea, herri mailako ekipamendu publiko bat eta merkatal erabilera batzuk ezartzea. Ikuspen orokorra, Matxaria, Eibarko udalari espazio bizi bezala itzultzea da, Eibarko herriak dituen kalitatezko espazioen beharrari erantzuna emanez.

Adostasun maila altua dago ere, erabilera hauek ezartzeko, nagusiki egungo eraikinak berreskuratuz egin behar dela irizterakoan. Dena den, jakitun dira egungo auzoaren konfigurazioak, barne mugikortasuna aipaturiko baldintzetan hobetzea ukatzen duela, ondorioz mantentze partzialez eta eraisketa selektiboez hitz egiten da, aipaturiko erabilerak ezartzea eta beraien funtzionamendua egokia izatea ahalbidetzeko.

Zein eraikin mantendu eta erabilera ezberdinak non kokatu erabakitzeke, eraikinen egoera eta tipologia ezaugarrien azterketa xehatu bat egin behar da, Mugikortasun Planarekin osatuz.

Aipatzekoa da ere oinarrizko birgaitze eta berroneraketa estrategiak, auzoaren nortasuna berreskuratzeko aukera eskaintzen duela, beti ere, kudeaketa egoki baten bitartez, birgaitzeek eratorri ditzakeen alokairuen igoerak eragin ditzakeen egungo jardueren lekualdatzeak ekidinez. Esparru honetan ideia orokorra, Matxariaren berroneraketak gizarte ikuspuntu bat izan behar duela da. Berroneraketa, herrian behar gehien dituzten bizilagun, langile eta kolektiboengan pentsatuz gauzatzea, aldi berean, berreskuraketa prozesuan herritarrak modu aktiboan inplikatzeko modua aurkituz.

Eraisketa partziala eta egungo eraikinen berreskuraketa ahalbidetzeko, beharrezkoak dira jabeekin nolabaiteko hitzarmenak eta birgaitzeetarako laguntzak lortzea. Epe motzera bideragarri ikusten da eraikin edo oruberaren baten aldi baterako lagapena negoziatzea bertan aldi baterako jarduera edo erabilerak ezartzeko.

Adostasuna dagoen eta epe motzetik abian jarri beharreko beste estrategia orokor bat, eraikinen, hiri inguruaren eta mendi magalen Mantenu Plana, eta gaikako hondakin bilketarako edukiontzia jarriz hasi beharreko Hondakinen Kudeaketa Plana dira. Alderdi hauek ingurunearen kalitatearen baldintzatzaile nagusi bezala ikusten dira.

Mantenuaren harira, eraldaketa prozesuaren gizarte izaera azpimarratzen duen beste ekintza alternatiboak planteatzen dira, Elkarlana eta iraupen luzeko langabetuei zuzendutako Enplegu Plana esaterako.



DEBEGESA  
BIC BERRILAN

ADOSTASUNA  
+/-

LEHENTASUNA  
+

H.E.O. (HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALA)  
ELKARTEENTZAT  
LOKALAK  
HERRI BARATZAK

ADOSTASUNA  
+

LEHENTASUNA  
+

ESTAZIÑO KALEA  
ZONA 10

ADOSTASUNA  
+

LEHENTASUNA  
+

## EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak

Jarduera ekonomikoei dagokienez, pizgarriak eta erraztasun fiskalak definitzeko aukerak planteatzen dira, egun dauden enpresak finkatzeko eta eskala txikiko jarduera berriak ezartzea bultzatzeko. Debegesa eta Bic Berrilanen laguntzarekin kontatu daitekeela aipatu da.

Ekipamendurako, behin baino gehiagotan aipatu da nolabaiteko hezkuntza ekipamendu bat ezartzea, zehatzago Hizkuntza Eskola Ofizialaz hitz egin da. Litekeena da erabilera hau aipatzea, egun osoan zehar irekita dagoelako, eta herritar guztiei zuzenduta dagoelako, adin, genero edo jatorri bereizketarik egin gabe.

Beste hipotesi bat, auzoko espazioak, egun baldintza egokiak ez dituzten tokiko elkarte eta taldeentzako, esaterako emakumeen elkarte eta gazteentzako, lokalak atontzea litzateke. Auzoaren biziberritzea bultzatuko lukeen lokalen gutxieneko atontze bat izango litzateke, beraz epe motzean egin ahalko litzateke denboran zehar sendotu eta hobetuz. Gizarte ikuspegia indartzen duen zerbitzuen eskaintzaren barruan legoke mendi magalen zati bat herri baratzetan bihurtzea ere. Honek mendi magalen mantentzean lagundu, auzoan berriro naturaren presentzia txertatu eta herri guztitik jendea bertaratzea ahalbidetuko luke.

Merkataritza ere lehentasunezko jarduera kontsideratzen da. Auzoko ehunduran zehar sakabanatutako gertuko merkataritza batean pentsatzen da gehienbat. Estazio kaleari jarraipena emateko, bereiziki Zona 10 ekimena hedatzeko, hipotesia egin da (sarbidea hobetu ostean). Estrategia hau errealitate bihurtzeko, auzoan modu honetako jarduerak ezartzeko nolabaiteko pizgarriak definitzea garrantzitsua kontsideratzen da. Merkatal jarduera ere eskala txikiko ekoizpen jarduerarekin lotuta egon liteke (artisautza, artisten tailerrak e.a.)

Partaideen gehiengoak, agertoki honetan, egoki ikusten du etxebizitzaren eskaintza handitzea, hasteko hutsik dauden etxebizitzak merkaturatuz eta eraikinen bat birmoldatuz. Baliabide gutxiko pertsonak, gazteak esaterako, edo herri gunetik gertu baina bestelako bizi kalitatea nahi duten pertsonak erakarri ditzakeen etxebizitza "alternatibo" bat eskaintzea pentsatzen da.

## EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, emaitzak

HITZARMENAK

PLANAK

PIZGARRIAK

ADOSTASUNA



LEHENTASUNA



JASANGARRITASUNA

JARRAIPENA

ADOSTASUNA



LEHENTASUNA



Aipatu den bezala, ekintza guzti hauen bideragarritasuna, jabeekin hitzarmenak , birgaitzeetarako laguntzak, eta ekonomia eta merkatal jarduerentzako pizgarriak lortuko dituen kudeaketa eredu aldaketa batetik etorriko da.

Espazio publikoaren gaiari garrantzia gutxiago eman zaio, aurreko txostenean aipatu bezala, beste arazoekiko bigarren mailakoa izan eta haien konponbidearekin lotua dagoela kontsideratzen delako. Hala ere, kale eta eraikinentzako planteaturiko hobekuntzak hiri espazioaren hobekuntza eta bere egoteko funtzioa areagotzea dakar.

### Ingurumena


Ekintza lerro honetangehien nabarmendu beharreko alderdia, auzoan egingo diren esku-hartze oro jasangarritasunaren printzipio orokorrez, ekonomia, gizarte eta ingurumenekoez gidatuko dela da. Horregatik garrantzitsua kontsideratzen da etorkizunean burutuko diren proiektuen Jarraipen eta Ebaluazio Plana diseinatzea.

Matxaria erreka azaleratzea ez da bideragarri ikusten, baina bai goiko zatia, baldin eta erabilerarik emango bazaio, hobetzea.



# EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, ebaluaketa

Perfil participantes-Género




Parte-hartzearen maila eta kalitateari dagokionez, saio honetan ere ebaluaketa positiboa da.

Parte-hartzean jarraipen maila handia atzeman da. Saio honetan ere, hiru partaide berri gehitu dira, ordezkagarritasun maila handituz. Tailerren txostenak aurrez publikatzeak jendea gehitzea eta kalitatezko parte-hartzea ahalbidetzen du.


Partaide berriak inolako arazorik gabe txertatu dira prozesuko ibilbidean, eta jarrera aktibo eta proposatzailea izan dute. Guztira 15 partaide izan dira eta jarraipen, aniztasun eta ordezkagarritasun maila ikusirik, egokia izaten darrai. Honek parte hartzearen kalitatea eta emaitzen baliotasuna hobetzen du.

Tailerraren amaieran, beti bezala, herritarrei lan saioa, antolaketa, parte-hartzea, dinamika eta emaitzen kalitate mailaren arabera ebaluatzeko eskatu zaie. Lau koadranteetan banatutako diana erabili da. Herritarren gogobetetze maila altua izan da, proposaturiko lanean izandako inplikazioa eta hizketarako jarrera egokia esplikatuz




**15**  
**PARTE-HARTZAILE**


Perfil participantes-Edad




Perfil participantes-procedencia



Perfil participante\_Formación



Perfil participantes-Vínculo Matxaria



## EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, ondorioak

Topaketa honen emaitza egokia kontsideratzen da. Adostasun mailatik haratago, aurre itxura hartzen hasi den Ekintza Planak prozesuko helburu orokorrek duen arrazionaltasun eta koherentzia nabarmendu behar da.


Egin beharreko esku-hartzeen lehenespene bat egin da. Abiapuntua, mugikortasun arazoei konponbidea ematea izan beharko da, egungo beharrekin eta aurre irudikaturiko erabilera ezberdinak bat egiten duten auzo biziarekin bat datorren egitura definitzeko. Matxariako lehen gainbeheraren arrazoiak 70. hamarkadan eman zen ekoizpen eredu aldaketara egokitzeko ezintasuna izan zela gogora arazten dugu. Eredu berriak, irisgarritasun eta egitura espazial berri bat eskatzen zuen.

Beraz, Matxaria herrian txertatua dagoen eta herritar guztien bizi kalitatean eragiten duen XXI. mendeko hiri espazioan eraldatzeko, ezinbestekoa da, hiri ehundura harrotzea, mugikortasun sistema funtzional, arrazoiak, seguru eta oinezkoei ibilgailu pribatuei baina protagonismo handiagoa ematen diena ezartzeko, eta bere ondare eraikia berreskuratzea eta eraikinak egungo bizimodu eta herriaren benetako beharrekin bat datozen erabilerak txertatzeko birmoldatzea.

Guzti hau, alderdi ekonomiko, ingurumeneko eta gizarteko arteko sinergiak bilatzen dituen jasangarritasun globalaren ataripean.

ONDORENGO ETAPA  
IDEIA TAILERRA

NOLA , NON, NOIZ ETA  
NOREKIN  
ZEHAZTU DEFINITURIKO  
EKINTZA PLANA



## EKINTZA ETA ESTRATEGIA TAILERRA, ondorioak

Diseinaturiko agertokiarekin bat eta bere norainokotasuna zehaztuz, gizarte alderdiak gailentzen diren auzo berroneraketa aurreikusten da. Matxaria, herriko ezaugarria den espazio faltari erantzuna emateko aukera bat izan daitekeela aipatu da, premia gehien duten taldeen, hau da, emakume, gazte eta enpresa edo merkatari txikien beharrei kalitatezko erantzun bat eman diezaiokeen inguru batean bihurtuz. Herritarrentzat ez da auzoaren elitizazio prozesu bat abian jartzea, baizik eta denboran zehar agertoki baikorragoan bilakatzen joango den, eta eguneratzeari esker bere nortasuna berreskuratzeko gai izango den, etengabeko eraldaketa prozesu bat hastea.

Herritarrek eraldaketa prozesu konplexu batez ari garela ulertu dute eta horregatik ez dituzte gauzatu ezinezko ekintzak proposatzen, proposatzen dituzten ekintza bakoitzeko gauzatu beharreko zeharkako neurriak definitzen dituztelarik, esaterako, azterketa xehatuak edo Berariazko Kudeaketa Planak. Inguruaren berreskuraketa prozesu mantsoa dela jakitun, berehalako hobekuntzak eragin ditzaketen behin behineko neurriak proposatu dira, ezarritako esparru orokorarekin bat etorritik eta epe luzeko helburuekin kontraesanetan erori gabe.

Ekintza Plan Integratuaren lehen zirriborro honetatik, hauek nola, non, noiz eta norekin martxan jarri aztertu behar da, ekintza lerroak esku-hartze konkretutan zehaztuz eta denboran zeharko lehenespena eta hauek definitu eta etenik gabeko gauzatzea lortzeko beharrezko diren eragileak ezarritik.

Lan hau Ideia Tailerrean burutuko da. Lanaren konplexutasuna eta orain arte lorturiko emaitzen maila ona ikusirik, herritarrei lan hau bi saiotan burutzea proposatu zaie. Partaideen prestasuna eta udalaren onarpena ikusirik, ideia tailerra otsailak 18 eta 25ean ospatuko da, arratsaldeko sei t'erdietatik aurrera Armagintza Museoko atarian, Portalean.

**MILESKER GUZTIOI  
ZUEN INPLIKAZIO  
AKTIBOAGATIK**

MATXARIATUZ PROZESUAREN  
HELBURUA

**E T O R K I Z U N E K O  
PROPOSAMEN TEKNIKOEN  
HERRITARREK EZARRITAKO  
ILDO ETA IRIZPIDEAK  
ERRESPECTATZEKO OINARRIAK  
EZARTZEA.**

**PARTE HARTZE IBILBIDEAREN ITXIERA**

**IDEIA TAILERRA**

**2015 OTSAILAK 18 ETA 25**







# ONDORENGO ETAPA, Ideia Tailerra, aurre informazioa

## MUGIKORTASUNA

- Saihesbiderako sarbideen hobekuntza.
- Ordezko kalearen eraikuntza. **1**
- Karga eta deskarga guneen atontze eta arautzea.
- Trafikoa murrizteko sistemak ezartzea.
- Seinaleztapena ezartzea.
- .....
- Pasabidearen handitzea eta sarbideen hobekuntza
- Tunelaren handitze eta hobekuntza (ordezko pasabidea). **2**
- Espaloiak eratu.
- Ibargain kalearen hobekuntza
- Argiztapen publikoaren hobekuntza.
- .....
- Gainazaleko aparkalekuen arrazionalizazioa eta seinaleztapena.
- Egungo eraikin batean, alturako parking bat ezartzea. **3**

## ERAIKUNTZA

- Eraikuntzen egoera eta karakterizazio tipologikoa (erabilera malgutasuna).
- Eraispen selektiboak.
- Birgaitzetarako laguntzak.
- Jabeekin hitzarmenak.
- Trantsizio erabilerak, edo aldi baterako erabilerak ezartzea **4**

## ERABILERAK

- Pizgarriak (jarduera ekonomikoak, merkataritza, etxebizitza hutsak, eraikinen birmoldaketa)
- Enpresa ehunduraren finkatze eta hedatzea.
- Zuzkidura publikoaren eratzea.
- Erakunde, gazte e.a.- entzako espazioen atontzea.
- Merkatal jarduerak bultzatzea. ZONA 10-ekin jarraitasuna.
- Etxebizitza hutsak merkaturatzea. **5**
- Etxebizitza eskaintza handitzea.

## ESPAZIO PUBLIKOA

- Mendi magaletan, bidexka edo/ eta bidegorriak eratzea.
- Herri baratzak eratzea. **6**
- Udalaren auto biltegiaren orubea atontzea.
- Orube eta lursail pribatuetan, trantsizio erabilerak ezartzea.
- Zokoguneak deuseztatzea.

## INGURUMENA/GIZARTEA

- Hondakinen gaikako bilketarako edukiontzia ezartzea
- Hondakinen kudeaketa plana (jarduera ekoizlea) **7**
- Udalaren mantenu plana (eraikinak, herri espazioak eta mendi magalak)
- Ohiko mantenu lanak (auzolana, enplegu-plana e.a.)
- Berroneraketa prozesuan, herritarren inplikazio aktiboa (ekimen sozial, artistiko e.a.)
- Etorkizuneko proiektuen jarraipen eta ebaluazio plana

